

Donostia, 2017ko azaroaren 17a

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, KULTURA KONTSEILUARI BURUZ

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udaltzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Kultura Kontseiluari buruz hilabete honetako PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gobernu Taldeak *Hitzak, Ekintzak* izeneko tresna jarri du abian, bere gobernu programa zenbateraino betetzen duen aditzera emateko, Udaleko webgunean. Tresna hori, esan dutenez, sei hilean behin eguneratuko da.

Kulturari dagokion atalean, harritu egin gaitu ikusteak gobernu programan jasota zeukan ekimen bat baztertu duela Udal Gobernuak: Kultura Kontseilua sortzea. Konpromiso hori, gainera, berretsi egin zuen aurtengo uztaileko Udaltzarak, Kultura Kontseilua abian jartzeko beharra helarazi genuenean.

Joan den uztailean aurkeztutako mozioan esan genuen bezala, kontseilu hori abian jartzea beharrezkoa da, balio baitezake, esate baterako, kulturaren arloko profesionalek lan baldintzetan dituzten arazoei aurre egiteko. Sindikatuen Batasunak musikaren arloari lotutako arazo batzuk salatu zituen: ezegonkortasuna, arriskuak eta kontratazioan jardunbide okerrak, besteak beste. Sektore horretako salaketak, ordea, kulturako beste arlo batzuetako profesionalek bizi duten egoeraren beste erakusgarri bat baino ez dira.

EAJ eta PSEren gobernu programak berak jasotzen zuen artista gazteei kulturaren eta artearen industrian aukera berriak sortzeko premia, eta horregatik, kontseilua abian jar dadila eskatu genuen.

Hilabete honetan aurkeztutako interpelazioaren aurrean, Gobernu Taldeak Kultura Kontseilua ez sortzea erabaki zuela jakin genuelako, zinegotzi ordezkariak esan zuen Kultura Sailarekin lankidetzeta "ezin

handiagoa” dela. Zinegotzi ordezkariaren esanetan, “bi urte hauetan argi ikusi da kulturaren sektoreekin elkarrizketarako nahikoa bide baditugula”. Kontua da, ordea, zinegotzi ordezkariak, emandako azalpen guztietan, hein handi batean erakundeen arteko lankidetzaz diharduela, Donostia Kulturak berak duen kultur eskaintza askotarikoan edo Donostian datorren urtean musika jaialdiak, antzerkikoak, dantzakoak, liburuak, ikus-entzunezkoak eta arte bisualak antolatzeko diru laguntzen deialdietan.

Gure iritziz, alabaina, horrelako kontseilu batek (eta ez dezagun ahaztu Kultura Kontseiluak 2006tik onartua duela erregelamendua) jada jasota dakar zer eta zertarako den: partaidetza sektorialeko organo bat, kontsultarako sortua, eginkizuntzat dituen informatzea eta eztabaidatzea, proposamenak egitea eta aholku ematea, bai ekipamenduei buruz, bai kultur programazioari buruz, bai kulturaren arloan euskararen erabilera normalizatzei buruz. Hauxe du helburu nagusia: Donostia “kulturaren hiri” gisa garatu dadin sustatzea, eta beraz, gure kultur ereduan hainbat alderdi bultzatzea, hala nola kalitatea, sormena, berrikuntza, eskaintza, kohesioa eta sarean egitea programazioa.

Gure udal taldearen iritziz, erabat funtsezkoa da Kultura Kontseilu hori berreskuratzea, eremu partekatu bat izango litzatekeelako, kohesioko eremu bat, baina ez soilik administrazioa jardun artistiko kultural ugarien adar bakoitzarekin lotzeko, baizik eta adar horiek guztiak elkarren artean erlazionatzeko.

Horrexegatik, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio bete dezala aurtengo uztailean onartutako mozioaren 1. puntua, zeinean Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen baitzion kontuan har zezala Kultura Kontseilua sortzeko ideia, Donostian kultur politikaren arloan ekintzak koordinatzeko eta proposatzeko eremu izan dadin, eta toki mailan arlo horretan egoera hobetzeko neurriak hartu ahal izan daitezen.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.